

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

372/2014 Erabakia, uztailaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena, azaroaren 4ko 734/2008 Erabakiaren aldaketa puntuala onartzen duena. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zen lekorako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri ondasun higiezinaren lurzoruaren eta eraikinen balioeztapan txostena

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 4ko 734/2008 Erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen lekorako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzoruaren eta hiri ondasun higiezinaren (eraikinak) balioeztapan txostena.

Ekainaren 3ko 256/2014 Foru Aginduak behin betiko onartu zuen lekorako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketa puntualaren espedientea, zeinaren xedea den udalerririk horretako hiri lurzorua hedatzea, eta horretarako SAUR-1 sektoreko lurzoru urbanizagarriaren zati bat, hain zuzen ere katastroko 1. poligonoko 1280 eta 1281 lurzatiak, birsailkatu eta SUR-5 finkatu gabeko hiri lurzoru bihurtuko dira.

Ondorioz, lurzati horien zerga zona aldatu egingo da, 7 zerga zonakoak (SAUR-1) izan ordez 3 zerga zonakoak (SUR-3 eta 5) izango baitira, eta horrek katastro balioa aldatzea dakar.

Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak 2014ko uztailaren 4an egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 4ko 734/2008 Erabakiaren aldaketa puntuala. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zen lekorako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzoruaren eta hiri ondasun higiezinaren (eraikinak) balioeztapan txostena. Horrez gain, udalerririk horretako hiri lurzorua hedatzea, eta horretarako SAUR-1 sektoreko lurzoru urbanizagarriaren zati bat, hain zuzen ere katastroko 1. poligonoko 1280 eta 1281 lurzatiak, birsailkatu eta SUR-5 finkatu gabeko hiri lurzoru bihurtuko da.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, zenbait toki administratibotik eragina duelako, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 103. artikulurekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 15a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRES GUERRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO